

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

Zalduondoko Udalak eta Arabako Lautadako Kuadrillak osatutako elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea, Estaturako gaikuntza duten toki administraziooko funtzionarioentzat gordea

Kontuan hartu behar da idazkari-kontuhartzailearen lanpostua bete beharko dela, titularrak aurki baja hartuko du eta.

Estaturako gaikuntza duten toki administraziooko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoak hartu ditut kontuan, eta hau

Elkartek erabakitakoa betez, eta elkarteko lehendakari naizen aldetik,

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA. Prozedura hastea, Arabako Foru Aldundiari Zalduondoko Udalak eta Arabako Lautadako Kuadrillak eratutako elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetze aldera, estaturako gaikuntza duen toki administraziooko funtzionarioa izendatzeko proposamena egiteko, aipatutako 128/2018 Errege Dekretuaren 49., 50. eta 51. artikuluetan xedatutako moduetako baten bidez eta adierazten duten lehentasunaren arabera.

BIGARRENA. Bost egun balioduneko epea hastea, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik, bete beharreko lanposturako hautagaiek parte hartze eskaerak aurkezteko, eranskin gisa doan ereduan eta adierazten diren agiriak erantsita.

Estaturako gaikuntza duen toki administraziooko funtzionario bat izendatuko da, eta lehentasuna izango dute lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiek.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen Eusko Jaurlaritzak argitaratutako merezimen-duen azken baremo orokorraren arabera ezarriko da lehentasuna egoera bakoitzean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da idazkia.

HIRUGARRENA. Hautagaien lehentasun ordena ezarri ondoren, eta elkartearen batzarrak izendapena hurrenkera horren arabera egitearen aldeko txostena eman ondoren, hautagai bakoitzari eskatuko zaio aurkez dezala destino duen toki erakundearen aldeko txostena eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak, hamar egun balioduneko epean eta aipatutako artikuluen arabera.

LAUGARRENA. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du Estaturako gaikuntza duten toki administraziooko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52. eta 53. artikuluetan xedatutako prozedurak.

BOSGARRENA. Elkarteko batzarrari ebazpen honen berri ematea egiten duen hurrengo bilkuran.

SEIGARRENA. Lanpostuaren ezaugarriak.

Izena: idazkaria. 3. kategoria.

Eskala: estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa.

Azpieskala: idazkaritza-kontuhartzailletza.

Taldea: A1/A2.

Destino-osagarria: 26.

Berariazko osagarria: 22.571,70 euro.

Hizkuntza eskakizuna: 4 (C2, C2). Derrigortasun data: 2024ko maiatzaren 27a.

Destinoa: Zalduondoko Udala (ehuneko 40) eta Arabako Lautadako Kuadrilla (ehuneko 60).

Zalduondo, 2025eko martxoaren 21a

Elkartearen lehendakaria

LURDES LEKUONA LABURU

ERANSKINA

(Eskaerak Zalduondoko udaletxean aurkeztuko dira)

Nik,..... jaunak/andreak, (NANa:; jakinarazpenetarako helbidea:; telefono zenbakia:; Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa: azpieskalakoa; gaur egun lanpostuan dihardut, toki erakundean, (e) k egindako izendapenaren bidez; lanpostuaren jabetze data: / zerbitzu aktibora itzultzeko egoeran –lankidetzat lanpostuak kentzeagatik / izendapen askeko lanpostua uzteagatik–).

Adierazten dut

Jakin dudala Zalduondoko Udalak eta Arabako Lautadako Kuadrillak eratutako elkarteko idazkari-kontuhartzailen lanpostua hutsik dagoela, eta behin-behineko izendapen bidez betetzeko aukera dagoela, zerbitzu eginkizunetan edo zereginen pilaketagatik. Betetzen ditudala lanpostuari dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betez, hau

Eskatzen dut

Zalduondoko Udalak eta Arabako Lautadako Kuadrillak eratutako elkarteko idazkari-kontuhartzailen lanpostua behin-behineko izendapen bidez, zerbitzu eginkizunetan / zeregin pilaketagatik (ezabatu soberan dagoena), betetzeko prozeduran parte hartzea.

Honako hauek eranstean ditut:

* NANaren fotokopia.

* Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.

* Metaketako postua eskatuz gero, zereginen pilaketengatik izendapenik ez dudala adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

....., 20.....(e) ko..... aren(a).

Sinadura: